



**Bizkaiko Foru
Aldundia**

Gizartekintza Saila

**Diputación Foral
de Bizkaia**

Departamento de Acción Social

Bizkaiko Foru Aldundiaren otsailaren 10eko 5/98 FORU DEKRETUA, 1998an adinekoen babes-egoitzetan aldi baterako egonaldiak egiteko banakako ekonomi laguntzetarako deialdi publikoa onetsiko duena.

ZIOEN AZALPENA

Bizkaiko Foru Aldundiak, bere eskumenak erabiliz eta Gizartekintza Sailaren bitartez, adinekoen egoitzetan sartzeko banakako ekonomi laguntzei buruzko dekretua onetsi du.

Familia eta gizarte mailako arazoak edukirik, egoitza batean sartu behar izan eta egoitza horretako egonaldiaren guztizko kostua ordaintzeko ekonomi baliabide nahikorik ez duten adinekoentzat sortu dira epemugarik gabeko laguntza hauek.

Bestetik, aurreko dekretuan araupezu ez ziren beste egoera batzuk ere gertatzen dira, hots, adinekook zaintzen dituen familian gaixotasun nahiz ebakuntzaren bat izan delako edo oporraldia delako, adibidez, aipaturiko beharrezana aldi baterako baino ez izatea. Dekretu honen bidez, adineko ezgaituak zaintzen dituzten familiei aldi baterako atsedena emateko aukera eskaini nahi zaie, familia horiek gerora ere adinekoa zaindu eta bere ingurunean eutsi ahal izan dezaten.

Bizkaiko Batzar Nagusiek, 1997ko abenduaren 19an eginiko osoko bilkuran, Bizkaiko Lurralde Historikoaren 1998ko ekitaldirako aurrekontu orokorrak onetsi zituzten abenduaren 19ko 14/97 Foru Arauaren bidez. 1998ko ekitaldirako Bizkaiko Lurralde Historikoaren aurrekontu orokor horietan, bestalde, aipaturiko laguntzak ordaintzeko behar den zainpeketa ezarrita dago.

Hori dela bide eta Bizkaiko Lurralde Historikoko foru erakundeen hautapen, antolaketa, araubide eta jardunbideari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Araueko 17 eta 64.3 artikuluek emandako eskumenak erabiliz, eta Bizkaiko Lurralde Historikoaren Ekonomi Araubideari buruzko urriaren 14ko 10/97 Foru Arauarekin bat etorritik, Gizartekintza Saileko foru diputatuak proposatu eta Aldundiak 1998ko otsailaren 10eko bileran eztabaidatu eta onetsi ondoren, hauxe

XEDATU DUT

1. artikulua.—Adinekoen babes egoitzetan aldi baterako egonaldiak egiteko laguntzetarako deialdi publikoa

Foru dekretu honen bitartez, adinekoen babes egoitzetan aldi baterako egonaldiak egiteko ekonomi laguntzetarako deialdi publikoa onesten da.



2. artikulua.—Laguntzen onuradunak

Eskabidea aurkezten den egunean Bizkaiko Lurralde Historikoko edozein udalerritan gutxienez hiru urte lehenagotik erroldaturik egon direnek heldu ahal izango diete laguntza hauei, baldin eta hurrengo beharkizunok betetzen badituzte:

- a) 60 urtetik gorakoa izatea, inguruabar bereziak eta premia-premiazko arrazoiak gertatzen direneko aparteko kasuetan izan ezik, halakoak direnean, behar den moduan bidezkotu eta dagokion foru erakundeak onetsi beharko dituelarik.
- b) Laguntzarik gabe baliatzea eragozten duen eritasun elbarritzaileraren bat dela medio, inoren laguntza behar izatea, egoitzetan sartzeko banakako ekonomi laguntzak araupetzen duen indarreko dekretuan ezarritakoaren arabera.
- c) Eskabidea aurkezteko unean edo/eta laguntza emakidatzean egoitzetan daudenak alde batera utzita, adinekoa beren kargura duten pertsonak aldi baterako kanporatu edo gaixotu direlako eskabidea aurkezteko unean edo/eta laguntza emakidatzean egoitzetan daudenak alde batera utzita, hura bere ohizko ingurunean geratzea eragozten duten famili eta ekonomi arazoak izatea.

3. artikulua.—Irizpide nagusiak

Zerbitzuaren beharrezan mugatu eta, horrenbestez, laguntzaren emakida zehazteko inguruabar pertsonalak baloratzekoan, lehenengo eta behin hurrengook, batez ere, hartuko dira kontuan:

–Zaintzailearen ausentziaren arrazoia, haren gaixotasun edo ebakuntza kirurgikoren batengatik gertatu denean lehenengo izango duen. Atsedena edo oporraldia direla kausa eskatzen denean, hilabeteko (30 egun) egonaldia, gehienez, emakidatuko da.

–Onuradunaren eta beronen bizikideen gizarte eta famili mailako egoera.

–Onuradunaren famili unitatearen ekonomi baliabideak.

Laguntza hauen emakidak, edozelan ere, dagokion aurrekontuko zainpeketa eta plaza-kopuru baliagarria izango ditu mugarri.

4. artikulua.—Laguntzetarako eskabideak aurkezteko epea eta tokia

Eskabideak onuradunek eurek edo berauen legezko ordezkariak egin beharko dituzte eta bakoitza erroldatuta dagoen udaleko Oinarrizko Unitatean edo Bizkaiko Foru Aldundiko Gizartekintza Saileko bulegoetan, Gran Vía kaleko 26ean, aurkeztuko dira. Halaber, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Administrazio Jardunbide Arruntari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 38. artikuluan eta baterako arauetan ezarritako arauetariko edozein erabiliz ere aurkeztu ahal dira, horretarako normalizaturiko eredu ofiziala (1. eranskinaren arabera) bete eta honako agiriok erantsiz.

–Erroldaketa ziurtagiria.

–Onuradunaren NANaren fotokopia edo haren legezko ordezkariaren eta zaintzailearen NANarena.

– Onuradunaren Gizarte Segurantzako kartilaren fotokopia eta/edo haren sanitate-urgazpeneko kartilarena.



–Onuradunaren famili unitatearen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren azken aitopenen fotokopia osoa edo, aitopenen egin beharrik ez izatekoan, aipatu unitateak jasotako sarrera guztien frogagiria.

Foru dekretu honen ondoreetarako, onuradunaren ezkontideak edo harekin ezkontzaren moduko hartueman iraunkorra duen pertsonak, 18 urtetik beherako seme-alabek eta nagusi ezgaituek osatuko dute famili unitatea.

–Onuradunak eguneroko bizimoduko jarduerak berez egiteko elbarritasunik ote duen eta, halakorik denean, zein den azaldu eta, halaber, eritasun infekzio-kutsakorrik ez duela adierazten duen medikuaren ziurtagiria.

–Laguntza-eskabidean adierazitako egoitzan sartzeari askatasunez erabaki duela azaltzen duen onuradunaren adierazpena, 2. eranskinean ezarritako ereduaren arabera.

–Gizartekintza Sailak, hala balegokio, beharrezkotzat jo eta egokiro eska lezakeen beste edozein agiri.

Deialdi hau egutegiko urte osoan zehar irekita egongo den arren, eskatutako aldia baino hilabete bat, gutxienez, aurkeztu behar dira eskabideak, zaintzailearen gaixotasun larria edo ebakuntza kirurgikoa gertatzen denean izan ezik.

5. artikulua.—Espedientearen instrukzioa

1. Gizartekintza Sailak, arauzko espedientea instruitzeko, espediente hori egiteko bidezkotzat jotzen dituen agiri guztiak eskatu ahal izango dizkio onuradunari. Eskatutako agiriak aurkeztu nahi ez izateak, aitortu beharreko datuetan aizunkeria edo alderauzketarik egiteak nahiz laguntza lortzeko maulazko edozein jarduera egiteak espedientea artxibatzea erakarriko luke, jokabide horietatik erator daitezkeen erantzukizunen kalterik gabe.

2. Gizartekintza Saileko Adinekoen Atalak 3. eranskinaren arabera txostena egin beharko du honakook azalduz: onuradunaren eta zaintzailearen gizarte eta familia mailako arazo eta beharizan-mailaren balorazioa eta onuradunaren ekonomi egoeraren ebaluazioa, hark plazaren kostuaren finantzaketan zenbatean parte hartu behar duen zehaztuko duena, 6. artikuluan xedatutakoaren arabera.

3. Arauzko espedientea instruitu ondoren, eta hala balegokio, Gizartekintzaren Plangintza eta Kudeaketako zuzendari nagusiak, edo beronek eskuordeturiko pertsonak, eta hiru batzordekidek eraturitako Batzorde Teknikoak hura aztertu eta iritzia eman eta proposamena egin ostean, eskudun organoak laguntza ukatu edo ematen duen bidezko ebazpena eman eta interesdunari legez jakinaraziko dio.

Batzorde Teknikoak, sailaren lehentasunak, plazaren kostua eta baliagarritasuna, batetik, eta onuradunaren nahiak, bestetik, kontuan izanik erabakiko du zein egoitzatan sartuko den onuradun bakoitza.

Eskabideak ekitaldi honetan ebartziko dira eta, ekitaldia igarotakoan berriazko ebazpenik eman ez bada, laguntza-eskabidea gaitziritzia izan dela ulertuko da; horrek, ordea, ez dio eskudun erakundeari azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 42. artikuluan ezarritakoaren arabera ebazpena ez emateko salbuespena emango.



6. artikulua.—Plazaren kostua eta finantzaketa

Plazaren gehieneko kostu teorikoa (barne-egoiliarrarena) eguneko 7.353 pezetakoa izango da, BEZ barne, Bizkaiko Foru Aldundiak eta onuradunak berak ordainduko dutena. Plazaren benetako kostua aipaturiko kostu teorikoa baino gutxiagokoa denean, haren benetako kostua hartuko da kontuan.

Onuradunak ordainduko duen portzentaia onuradunaren eguneko per capita sarreraren %75a izango da, horretarako, jasotzen dituen pentsioak (aparteko ordainketak alde batera utzita) eta ordaintzen dizkioten errentak kontuan hartu eta zenbatuko direlarik; ondasun higikor eta higiezinak dauzkatenean, horiek, berriz, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan ezarritako arauei jarraituz baloratuko dira, ohizko etxebizitza salbuetsiz; edozelan ere, onuradunak gutxienez plazaren %35a ordaindu beharko du.

Bizkaiko Foru Aldundiak plazaren kostuaren zenbateko osoa betetzeko geratzen den aldea ordainduko du.

Onuradunak egoitzari ordainduko dio, zuzen-zuzenean, berak ordaindu beharreko dirutza. Bizkaiko Foru Aldundiak ere egoitzari ordainduko dio, zuzen-zuzenean, dagokion dirutza, legez luzatutako faktura aurkeztu ondoren.

7. artikulua.—Egonaldien eta laguntzen iraupena

Foru Agindu honen bidez deituriko ekonomi laguntzak, edozelan ere, aldi baterakoak izango dira eta 15 egun, gutxienez, eta 3 hilabete, gehienez, iraungo duten epealdi edo txandetarako emakidatuko dira, behar den moduan arrazoituriko gaixotasun larri edo ebakuntza kirurgikoko salbuespeneko kasuak direnean izan ezik.

Laguntza hauek eraginik gabe geratuko dira emakidatze epea amaitzean edo onuradunak berak eta/edo bere familiak laguntzari beren-beregi uko egitean, halakorik gertatu baino lehen ere ezezta daitezkeelarik laguntzaren emakida erakarri zuten arrazoiak desagertu izanagatik.

8. artikulua.—Plaza erretserbak eta ordainketa

Foru dekretu honetan araupetutako laguntzen onuradunek, eta eritetxeren batera sartu behar izanaren ondorioz egoitzatik kanpo daudenean, eritetxean dauden bitartean plazarako erretserbarako eskubidea izango dute, eta onuradunek, epe horren barruan, egonaldi arruntei dagokien ekonomi ekarpenaren ehuneko 20a ordaindu beharko dute.

Egotetxeak, gai hori dela eta, gertatutako gorabehera guztiak Gizartekintza Sailari jakinarazi beharko dio.

Horrelakoetan Bizkaiko Foru Aldundiak bere gain hartuko du onuradunaren ekonomi ekarpenetik plazaren kostura bitarteko aldearen ordainketa.

9. artikulua.—Onuradunaren eta beronen familiaren betebeharrak

Laguntza emakidatu eta, hala balegokio, onesten denetik, onuradunak eta/edo berau hartuta daukaten senideek onuraduna sartzan den egoitzari, zuzen-zuzenean, plazaren kostuari Bizkaiko Foru Aldundiaren ekarpena kentzetik ateratzen den dirutza ordaintzeko konpromisoa hartzen dute; era berean, onuradunak



**Bizkaiko Foru
Aldundia**

Gizartekintza Saila

**Diputación Foral
de Bizkaia**

Departamento de Acción Social

Bizkaiko Foru Aldundiaren otsailaren 10eko 5/98 FORU
DEKRETUA, 1998an adinekoen babes-egoitzetan aldi baterako
egonaldiak egiteko banakako ekonomi laguntzetarako deialdi
publikoa onetsiko duena.

eta beronen senideek, hurrenez hurren, laguntza emakidatu zaion egonaldia amaitutakoan egoitza utzi
eta onuraduna berriz hartzeko konpromisoa hartzen dute.

10. artikulua.—Aurrekontuko partida

Foru agindu honetan aipatzen diren banakako laguntzak Bizkaiko Lurralde Historikoaren 1998ko
aurrekontuko (03) saila, (004) atala, 310303 egitaraua, 46100 ekonomikoa delako partidaren pentsutan
ordainduko dira, laguntzon esleipenaren muga partida horretan dagoen kreditu erabilgarria izango dela.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Gizartekintza Saileko foru diputatuari ahalmena emana zaio foru dekretu hau garatu eta betearazteko
beharrezkotzat jotzen dituen xedapen guztiak eman ditzan.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Foru dekretu hau indarrean jartzean, beronetan xedatutakoaren aurka dauden edo kontraesanik egiten
dioten maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak indargabeturik geratuko dira.

AZKEN XEDAPENA

Foru dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta egun berean jarriko da indarrean.

Bilbon emana, 1998ko otsailaren 10ean.

Ahaldun nagusia,

JOSU BERGARA ETXEBARRIA

Gizartekintza Saileko foru diputatua,
INMACULADA LOROÑO ORMAECHEA

1. eranskina

ADINEKOEN EGOTETXEETAN SARTZEKO EKONOMI

laguntzetarako eskabidea

A) *Onuradunaren datuak*

Izen-deiturak:

NAN zk.: Jaioteguna:

Egoitza: K/PI.: Zk.: Pisua:



Bizkaiko Foru Aldundia

Gizartekintza Saila

Diputación Foral de Bizkaia

Departamento de Acción Social

Bizkaiko Foru Aldundiaren otsailaren 10eko 5/98 FORU DEKRETUA, 1998an adinekoen babes-egoitzetan aldi baterako egonaldiak egiteko banakako ekonomi laguntzetarako deialdi publikoa onetsiko duena.

Herria:

Posta kodea: Telefonoa:

B) *Onuraduna bere kargura duen edo zaintzen duen pertsonaren datuak*

Izen-deiturak:

NAN zk.: Jaioteguna:

Egoitza: K/Pl.: Zk.: Pisu:

Herria: .

Posta kodea: Telefonoa:

Onuradunarekin duen ahaidetasuna edo hartueman:

Bizkaiko Foru Aldundiaren Ekonomi Laguntzei buruzko 1998ko otsailaren 10eko 5/98 Foru Dekretuaren itzalpean, hauxe

ESKATZEN DUGU:

.....(e)tik(e)ra bitartean, adinekoentzako babes-egotetxetariko batean..... egunetarako sartzeko ekonomi laguntza, honako arrazoiengatik:

.....
.....
.....
.....
.....

Eskatzen diren babes-egotetxeak:

.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....

Horretarako hauxe adierazten dugu:

—Eskatzen diren agiriak, inprimaki honen atzeko aldean adierazten direnak, eskabide honi batu dizkiogula; datuen faltasunak edo ezkutaketak ekonomi laguntza ez emateko edo, hala balegokio, baliogabetu eta itzultzeko zio gerta daitezkeela dakigularik.



**Bizkaiko Foru
Aldundia**

Gizartekintza Saila

**Diputación Foral
de Bizkaia**

Departamento de Acción Social

Bizkaiko Foru Aldundiaren otsailaren 10eko 5/98 FORU
DEKRETUA, 1998an adinekoen babes-egoitzetan aldi baterako
egonaldiak egiteko banakako ekonomi laguntzetarako deialdi
publikoa onetsiko duena.

—Adinekoa hartuko duen egotetxeari plazaren kostu osoari Bizkaiko Foru Aldundiaren ekarpena edo laguntza kentzetik ateratzen diru kopurua zuzen-zuzenean ordaintzeko konpromisoa hartzen dugula.

—Era berean, ematen den laguntzaren epea amaitutakoan, onuradunak egotetxea utzi eta onuraduna beren kargura duten eta/edo zaintzen duten pertsonak hura berriro hartzeko konpromisoa ere hartzen dugula.

Bilbon, 1998koaren(e)an.

Onuraduna bere kargura duen

OnuraduNaren eta/edo zaintzen duen pertsonaren

sinadurA, sinadura,

2. ERANSKINA

Adinekoentzako babes-egotetxe batean sartzea askatasun osoz onartzen duela adierazteko agiria

Nik,jn.ak/and.ak.

.....NAN zk. izanik,

..... adinekoentzako egotetxean sartzea askatasunez onartzen dudala adierazten dut.

.....(e)n, 1998koaren(e)an

Sinadura,

3. eranskina

Onuradunaren datuak:

Adina: Sexua: Egoera zibila:

Bizikide dituen senideak (ahaidetasuna):

.....

Noiztik bizi den senideekin:

Zaintzailearen datuak:

Onuradunarekin duen hartuemana:

.....

.....

Eskabide hau egiteko arrazoia:

Aurreko urteetako konponbidea (konponbiderik izan bada):

.....

.....

Onuradunaren ekonomi egoera:



**Bizkaiko Foru
Aldundia**

Gizartekintza Saila

**Diputación Foral
de Bizkaia**

Departamento de Acción Social

Bizkaiko Foru Aldundiaren otsailaren 10eko 5/98 FORU
DEKRETUA, 1998an adinekoen babes-egoitzetan aldi baterako
egonaldiak egiteko banakako ekonomi laguntzetarako deialdi
publikoa onetsiko duena.

Zaintzailearen ekonomi egoera:

Onuradunaren ekonomi partaidetza:

(I-302)